



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Jose Maria Moreno > WAN-IFRA Iberica-ko gerentea

Hedabide idatziek egun duten lekuari eusteko bide berriak arakatu beharko dituztela uste du Morenok, teknologia berriak baliatuta.

«Prentsak ez du etorkizunik gaur egun egituratuta dagoen moduan»

Jon Rejado Gasteiz

WAN-IFRA Egunkarien eta Albiste Editoreen Munduko Elkar-teak 18.000 argitalpen baino gehiago ordezkatzen ditu; 15.000 Internet gunetan eta 120 herrialdetan banatuta dauden 3.000 enpresa inguru. Horiek guztiak aztertu eta etorkizunerako aholkuak ematen ditu elkarte horrek. Oinarri horrekin prentsa idatzia- ren etorkizunaz hitz egin du Jose Maria Morenok, Arabako Foru Al- dundiaren laguntzarekin Euska- razko Komunikazio Taldeak antolatutako *Hedabideak etorkizun- ean, biharko komunikabideak eta Internet* jardunaldietan.

Hitzaldia eman aurretik, krisi ekonomikoarekin batera areago-

tu den hedabideen krisiari buruz, etorkizunari buruz eta Interneten eraginari buruz hitz egin du BERRIAREKIN.

Hedabideak krisian daude, eta, batez ere, hedabide idatzien orain arteko egitura ezbaian jartzen du horrek. Etorkizunik ba al du egitura horrek?

Hedabide idatziak etorkizunean ere izango dira gauzak ondo egiten badituzte, erabaki zuzenak hartzen badituzte. Prentsaren negozioak ez du etorkizunik gaur egun egituratuta dagoen moduan.

Papera desagertuko egingo al da?

Paperezko egunkariak egongo dira etorkizunean, baina beste modu batekoak. Gutxiengoentzat izango dira. Informazioa kontsumitzeko modua Internet bidezkoa izango da gehienbat, bai ordena-

gailuen bidez bai bestelako gailuen bitartez. Sakelako telefonoek dute aukera gehien etorkizun- ean, nire ustez.

Zer gertatuko da hedabide talde handiekin?

Egungo negozioa publizitatean oinarrituta dago, eta hedabide guztiek Interneten jarritako edukiengatik kobratu nahiko lukete, baina orain arte egindako ahale- ginek emaitza txarrak izan dituzte. Talde handi batzuek duela hainbat urte zituzten irabaziak dituzte buruan, baina hori ez da itzuliko paperezko egunkariare- kin. Diru sarrerak hobetuko badi- tuzte, Interneten edo sor litezkeen teknologietan egon beharko dute.

Eta norantz jotzen ari dira talde handi horiek?

Rupert Murdoch News Corpora- tion hedabide taldeko zuzendaria Microsoftekin harremanetan ari da. Aztertzen ari dira hedabide ho- rien edukiak Bing Interneteko bilatzailearen bidez ematea. Hau da, hitzarmena gauzatu zera, egun- kariak edukiak sortuko dituzte, eduki horiek Interneteko edukien bilatzaileei salduko dizkiete, eta horiek informazioa kudeatuko lu- kete irabaziak izateko.

Telebistaren ereduarekin parekatu daiteke? Ekoizleak programak sor- tu, telebista kateei saldu...

Murdoch eta Microsoft hori ari di- ra eztabaidatzen ari direna.

Ohiko hedabide erraldoiei bilatzaile- ak gehituko bazaizkie, are talde han- diagoak sortuko dira.

Aukera bat da, baina oraindik

ezin da zehaztu zer gertatuko den. Bakoitza bere bidea egiten ari da une honetan. Erresuma Batuko Telegraph taldearen ustez, etorki- zuna multimedia da, adibidez. Orain arteko egitura berri, eta mundu digitalean lan egiteko gai diren kazetariak prestatu nahi di- tu. Hori berritzailetzat jo zen, bai- na orokortu egin da.

«Informazioa kontsumitzeko modua Internet bidezkoa izango da gehienbat»

Eta, zure ustez, zeintzuk dira une honetan lehentasunak?

Nire ustez, une honetan egunka- riek kalitatezko produktua egin beharko lukete, eta eduki horiek noizentzat diren zehaztu.

Zergatik?

Diru sarrerak lortzeko modu zuze- nena izango da luze gabe. Hau da, hori ondo zehaztuta, iragarleei esango diete, zehatz-mehatz, zer irakurle motari zuzenduko zaion bere iragarkia. Nire ustez, ildo ho- rretatik joko du negozioak.

Kazetariak prestatzeari buruz hitz egin duzu. Interneten kazetaritza ikasketak ez dituzten pertsonak idatz dezakete, ordea. Nola eragindu horrek hedabideetan?

Irakurleak gero eta informazio gehiago jasotzen du kazetari pro- fesionalak ez diren pertsonengan- dik. Konfiantza lekuz aldatzen ari dira neurri batean, kazetari pro- fesionalatik profesionalak ez dire- netara. Ordea, konfiantza hori ez da erabatekoa. Irakurleak orain- dik bereizten du informazioa zein- nek ematen duen.

Paperezko egunkariak gutxiengoent- zat izangodirela esan duzu. Paperak informazio lokala baino ez ote du hartuko?

Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio eremu txikietan au- kerak bilatzeari. Irakurlearengana eta iragarlearengana gertura- tzeko ahalegina egiten ari dira he- dabide batzuk; auzoetako infor- mazioa ematera igaro dira batzuk.

Laguntzarekin, dena da errazagoa

Plan Renove berria

- Galdarak
- Herri-argiztapena
- Automobil parkea

Eskabideak aurkezteko azken eguna:
2009ko abenduaren 31

Informazio gehiago www.eve.es



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



EVE Ente Vasco de la Energía

